




GOZAMENEZ
Gazteria eta sexualitateari
buruzko programa



CON MUCHO GUSTO
Programa sobre juventud
y sexualidad

Aurkezpena

Bortzirietako Gizarte Zerbitzua Gozamenez programaren baitan dagoenez, 2018ko uda, oporrak eta herriko besta giroa aprobetxatu nahi dugu gonbidatzeko: Arantza, Igantzi, Etxalar, Lesaka eta Berako gazteei (12-18 adinekoei) egitasmo honetan parte hartzera.

Helburua

Lehiaketaren helburua da Bortzirietako gazteek (12-18 urte bitarte) argazkiaren bidez gozamina, harremanak, errespetua, sentimenduak eta sentitzeko erak, aniztasuna etab. adieraztea da.

Nahi da, ideiak, sentimenduak, pentsamenduak, etab. adieraztea ikuspuntu desberdinetatik, adin desberdinetatik, momento desberdinetatik, herri desberdinetatik... beti ere ikuspegi positibo, integral, plural eta ireki batetik pertsonaren garapen globala bilatuz edo ahalbidetuz. Eraiki nahi dugu!!

Azpimarratu nahi dugu bakoitzak nahi eran, gustuko duen moduan sentitzea, disfrutatzea, erlazionatzea, komunikatzea, dantzatzea, irri egitea... zilegia dela non eta bakoitzaren hautua den, norbere burua eta bertzeena errespetatuz egina den!

Parte-hartzaileak

- ✓ Bortzirietan bizi den gazte oro, 12 eta 18 urte bitartean.
- ✓ Zalantzak eta kontsultak: info@bortziriakgz.eus

Egutegia eta epeak

- Argazkiak aurkezteko epea: ekainaren 18tik urriaren 8ra (biak barne).
- Parte hartzaile bakoitzak gehinez 5 argazki aurkez ditzake.
- JPG formatuan aurkeztu behar dira.
- Argazkiarekin egilearen izen-abizenak, eta bi gurasoen kontaktua (izena eta telefonoa); herria eta non eta noiz aterata dagoen jarri beharko da. Argazkiko irudiekin batera iradokitako esaldi edo azalpenen bat ere atxikitzen ahal da.
- Argazkiak tratatu gabeak (originalak) izan beharko dira eta bertze inon argitaratu gabeak.
- Argazkiak koloretan edo zuri beltzean izan daitezke.
- Argazkiak helbide honetara aurkeztu beharko dira: info@bortziriakgz.eus

Epaimahaia

- Gizarte Zerbitzuko Hezitzailea
- "Gozamenez" programako kidea

Saria

- Irabazlea zein den urriak 31 jakingo da. Zuzenean berarekin harremanetan jarritz.
- Soilik saritua izan den argazkia ttipi-ttapa aldizkarran, erran.eus web gunean, Gizarte zerbitzuaren web gune eta facebookean eta “Gozamenez” programaren web gune eta sare sozialetan ikusgai egonen da. Xorroxinen ere aipatuko da. Beti ere irabazlearen bi guraso baimenak edo/eta irudian ageri diren adin txikikoen guraso baimena baldin badago.
- Argazki egokirik ez bada epaimahaiak saria banatu gabe gelditzea erabaki dezake.
- “Kirol” materiala erosteko bonoa/” ikasketa” materiala erosteko bonoa

Aukeratua ez izateko irizpideak

Helburuen atalean eskatutako betetzen ez duten argazkiek edo “Gozamenez, Con mucho gusto” programak, programa honetan lantzen diren helburuei ez dagozkien obrak aurkezten badira, ez onartzeko eskubidea egongo da.

Eskubide lagapena

Parte hartzaileek antolatzaileei (Bortziritako Gizarte Zerbitzua eta Gozamenez programari) eskubidea ematen diote aurkeztutako argazkiak aipatu diren aldizkari, irrati eta sare sozialetan aipatu edo argitaratzeko aurretik abisatu beharrik izan gabe ezta ordaindu beharrik gabe ere. Inolaz ere ez dira komertzialki ustiatuko.

Antolatzaileek beretzat gordeko dituzte jasotako lanak publikatzeko eskubidea. Lehiaketa honetako parte-hartzaileak, bidalitako lanen jabe den neurrian, lanak erabiltzen eta jendeaurrean erreproduzitzen uzten dio Gizarte Zerbitzuari eta Gozamenez programari, euskarri inprimatuan edo interneten, betiere, egilearen izena adieraziz. Parte hartzaileak adin txikikoak direnez, aurrez hauen gurasoen baimena ere jasoko da.

Oinarrien onarpena

Lehiaketan parte hartzeak, oinarrien eta epaimahaiaren erabakien erabateko onarpena ekartzen du. Lehiaketaren antolatzaileek oinarrien punturen bat aldatzeko eskubidea dute, aldez aurretik publikoki jakitera eman eta parte hartzaileak jakinaraziz.